

Baleren Bakaikoa Azurmendi

Hau al dugu ezagutzaren jendartea?



zagutzaren jendartean bizi omen gara. Benetako ezagutzaren jendartean bizi gara ala horrela bizi garela sinetsarazi nahi digute? Gizarte zientziei dagokienez zaila egiten zaigu horrela dela pentsatzea, batik bat ekonomiaz mintzo baldin bagara. Izan ere, zalantzak berehala izango ditugu ikusita zer gertatzen ari den finantza eta ekonomia munduan.

Ezagutzeko ikasi egin behar da, etengabe gainera. Eta ezagutzaren maila gorena, oro har, unibertsitatean gauzatzen da, non irakasle-ikertzaile prestatueneke protagonismoa duten. Izan ere, ikerlari hauen buruetan egon behar luke finantza eta ekonomia sistemaren ezagutza eta gidatzeko neurrien diseinua, behar den unean praktikan jartzeko. Azken finean, sendagilearen lanaren antzekoa egin behar du ekonomilariak: ahal bada gaixotasunari aurre hartu edo gaixo dagoenaren arrazoiak aurkitu eta sendabidean jarri. Baina, tamalez, ekonomia arloan ez da horrela gertatzen.

Finantza sisteman etengabe produkt berriak eskaintzen jardun dute, egunetik egunera konplexuagoak gainera, eta berauek arautu gabe egoteaz gain ez dira ezagutzen. Haatik, esan daiteke jendeak finantza produktuak eskuratu dituela jakin gabe zer ari ziren erosten; jokaera honek edozein merkatuaren teoria xumeena ere ukatu egiten du. Teoria ekonomiko eta zuzenbidearen aurretik egon dira finantzetako produktuen diseinatzaileak.

Ekonomia errealean pentsamendu ofizialak merkatua mitifikatu eta jendartearen gainetik ipini du: dena merkatua da eta hortik kanpo ezer ez. Baina merkatuak erakunde edo boteredun gutxi batzuen lobbyek kontrolatzen dituzte; bestela begirada bat eman nekazaritzan, autogintzan, petrolio sektorean, energia nuklearrean, eta abarretan dauden lobbyak. Horiek manipulatu dituzte merkatuak eta prezioak eta erosle gehienak prezio hartzaile besterik gara.

Merkatuen aitzakiarekin, jendarte zibilak ongizatea garatzeko urteetan zehar



MADDI SOROKA

sortu dituen erakunde oro (langile sindikatuak ahuldu, ezkerreko alderdiak erosi, eta abar) suntsitzen ari dira estatu gehienak, Europako Batasuna (EB) aitzindari delarik. Bestalde, interes ekonomiko boteretsuek antolatutako erakundeen protagonismoa eta eragina areagotzen ari da (EBko Kontseilu eta Batzorde, EBZ, MME, NDF, MB, eta abar). Azken finean, merkatu librearen aitzakiarekin, mundu guztiko langilearen baldintzak parekatzen ari dira eta horren ondorioz bizimodu maila beherantz bidean doa, elite boteretsu baten aberastasuna etengabe hazten den bitartean. Azken hau egiaztatzeko nahikoa da estatistikei begirada bat ematea, non gardenki frogatzen den langileak herrialdeko aberastasunetik eskuratzen duen zatia murrizten ari dela, merkatuak desbabesten hasi zirenetik.



Azken finean, merkatu librearen aitzakiarekin, mundu guztiko langilearen baldintzak parekatzen ari dira eta horren ondorioz bizimodu maila beherantz bidean doa, elite boteretsu baten aberastasuna etengabe hazten den bitartean.

Azken hau egiaztatzeko nahikoa da estatistikei begirada bat ematea



Krisialdiaren garaietan aldaketarik ez dela egin behar aholkatzen digute, baina horrek ez du horrela izan behar. Aldaketak egin behar dira ekonomia eta finantzen kudeaketan, sakonak gainera. Jendartearen zerbitzuan egoteko printzipio zorrotzak ezarri behar zaizkio bai finantza sistemari, baita ekonomia errealarari ere. Arau zehatzak eta eraginkorrak ipini behar dira jendartearen kontroletik ez dezaten ihes egin. Beraz, jendarte zibilak badu zeregin erraldoia ekonomia ezagutzen hasi eta beroren norabidea zuzentzeko. Itxaron dezagun hurrengo krisialdirako gauzak aldatzen hasiak egongo direla. ■